Ulrike Meinhof

Giza-duintasuna urragarria da*

Itzulpena: Ane Azkuenaga Duran

Konstituzioa talde-interesen batek edo kosmobisio perfektu baten deribaziotik inposatu ez den demokrazia federalak daukan tresna bakarra da. Sortutako testuinguruak eta bere edukiak historiaren parte egiten dute – gerraosteko historiarena, zehazki.

Herrenchiemsee-n bildu zen kontseilu parlamentarioa, eta Alemanian hamabi urtez Naziek gobernatu ondoren, oraindik inguruan zeuden Mendebaldeko hiru guneetakoen artean onenak bildu zituena, basakeria mota bakar batek ere suntsitu ezin zuen mundu (alemaniar berri) baten oinarriak asmatzeari ekin zion, eta nazioarteko eta nazio mailako zuzenbidea errespetatuz eta etikoa, morala, gizatiarra eta historiarekin bat eginez egin zuen. Lortu nahi zen helburua eta aurkezten zituen aukerak kontuan hartuta, baliteke hori jada baikorregia izatea. Baina une hunkigarria izan zen, eta jende talde zabal batek oso serio hartu zuen. Parlamentarien gerraosteko aurpegi zargalduen gaineko adierazpenak begiratzen ditugunean, haien planak txalogarria dirudi. Gutxi izan ziren garai hartan errealitatearen alderik kanpokoenak baino askoz gehiago hautemateko gai, edo zehar ikusteko gai.

Testua bi ideietan oinarritzen zen:

-Demokrazia giza-duintasuna berma dezakeen estatu-forma bakarra da; diktadura barbarikoa, ankerra, terrorista eta atzerakoia da.

-Gerra jadanik ez da aukera bat XX. mendean. Gerra-mozkinek edo harrapakinek ez dituzte galerak gainditzen: ez galera materialak, eta are gutxiago, giza galerak.

Bi arau horiek Konstituzioak, esperientzian oinarrituta, zuzenbide-estatu bat sortutako oinarriak ziren, ondo zehaztutako eta osatutako estatua, hainbat bitartekoren bidez kontu handiz planifikatuta eta bermatuta, Alemanian inoiz ezagutu ez den estatu bat. Eta, hasiera-hasieratik, soldadutza eta berrmilitarizazioa Konstituziotik kanpo geratu ziren, etorkizuneko Errepublika Federaletik debekatuta. Bere jatorrizko forman, Konstituzioa erabat libertarioa eta erabat antimilitarista zen. Ez zion inolako lekurik egiten erremilitarizazioari, eta oinarrizko eskubide eta askatasunak inolako mugarik gabe aplikatuko zirela ziurtatzen zuen, gaizkileen kasuan izan ezik, eremu federalaren barruan; denbora guztirako balio zuten, pertsona guztientzat, egoera guztientzat, urte oparoentzat eta eskasentzat.

Konstituzioaren zutabe horiek, marko juridiko bat ez ezik, programa politiko bat ere ematen zuten. Aurrerantzean, barneko oposiziogileei eta kanpoko arerioei aurre egin behar zitzaien, sorrerarekin bat zetorrena, eta orain sorrera, indarkeriarik ezaren nozioak eta legearen babes osoa. Alemanian legea ez litzateke inoiz gehiago botere borroken bidez manipulatuko. Bake-politika, desarmatze-egoera iraunkorraren zentzuan, ez litzateke inoiz gehiago alderdi-politikaren mende egongo, edo gehiengoaren arauz erabakiko litzateke.

* Artikuluaren jatorrizko izenburua: "Die Würde des Menschen ist antastbar" (*Konkret : Unabhängige Zeitschrift für Kultur und Politik 10*, 1962)

Baina gero 1956 etorri zen, Bundestageko bi hereneko gehiengoak Konstituzioa aldatu zuenean defentsa artikulu deiturikoak gehituz (Wehrartikel), eta, funtsean, lehendik politikoki jarritakoa gomutatuz. Izan ere, 1949an, Kantzilerrak mendebaldeko aliatuei alemaniarren parte hartzea eskaini zien defentsa gaietan, eta mugimendu horrek bultzatu zuen Gustav Heinemannek Adenauerren kabineteari uko egitera 1950ean. Beste era batera esanda, zazpi urte lehenago jadanik, eta Konstituzioaren espiritua eta letra erabat mespretxatuz, Adenauerrek bere politika propioak eratu eta aurrera eraman zituen. Konstituzioak ez zuen birmilitarizaziorako tarterik ontzat eman; birmilitarizazioak, traizio egiteaz gain, zeharo urratu zuen. Bestela esanda: gobernu federalaren politikak ezin ziren 1948ko Konstituzioaren markoan gehiago gauzatu. Eta gobernua ez zegoenez bere politikak uztearen alde, eta SPDk ere ez zuenez asmorik politikan aldaketak egiten tematzeko, Konstituzioa aldatu behar zen, exekutiboaren jardunak legezkotasunaren mugen barruan jarraituko zuela ziurtatzeko. Bere edukia zabaldu egin zen, eta bere izpiritua moztua.

Egunotako hizketak Konstituzioaren egungo egokitasuna ziurtatzen duen bigarren zutabea txikitzen; egunotako solasaldiak Konstituzioak bermatzen duen erabateko askatasuna murrizten –ez betiko, erremilitarizazioaren kasuan bezala, baizik eta «larrialdiko neurri» gisa–, hizketaldi mota horrek esan nahi du beste behin ere gobernu federalaren politikak ezin direla Konstituzioaren esparruan ezarri, edo Robert Jungk-ek 1959an arma nuklearren aurkako ikasleen kongresuan hain labur jarri zuen bezala, «Berrarmatze nuklearra eta demokrazia bateraezinak dira». Bakarrik orain Jungken adierazpenaren esanahi eta gaurkotasun osoa agerian geratzen ari dira. Ezarri zuen lotura (demokrazia ezaren eta arma nuklearren artekoa) argi eta garbi geratu da politika sozialdemokratak ordutik hiru urteotan garatu duen moduan. 1959an, Walter Menzelek, "Heriotza Nuklearraren Aurkako Batzordeko" presidente ohiak, oraindik argitaratu ahal izan zuen Vorwärtsen testu bat, hasiera batean eta funtsean Alemaniako Larrialdi Lege berrien aurka argudiatzen zuena. *Deutschlandplan*aren urtea izan zen hura. 1959a zen hori, eta SPDren babesean oraindik posible zen jendaurrean Alemaniako konfederazio bat eta Alemaniako bake itun bat eztabaidatzea. Urte horretan, Rapacki plana oraindik ere prentsan azaltzen ari zen, Pankowrekin izandako negoziazioei buruz hitz egitea txundigarria eta desegokia zela uste zenean, baina kezkatutakoen erantzunak suspertzen jarraitu zuen. Orduan, "ez dugu atsedenik hartuko heriotza nuklearrak gure herria mehatxatzen duen bitartean" esaldia ez zen lelo hutsa, ez behintzat Alderdi Sozialdemokrataren makinaren zati batentzat, ezta alderditik berehala baztertzeko arrazoia ere, baizik eta neurriak hartzeko eta borondate politikoa garatzeko arrazoi larri hilgarria. Baina SPD gobernu federalaren atzerri politika babesten hasi zen unean, bat egin zuen Larrialdi Lege baten alde ere. 1960an Herbert Wehnerrek NATOri baietz esan zionean, Arndt eta Schäfer diputatu federalak Larrialdi Legeei buruzko diskurtsoa eraikitzen parte hartzen hasi ziren. Schmidt erregai likido edo solidozko suziriekin fantaseatzen hasi zenean, SPDk amore eman zuen Larrialdi Legeei buruzko elkarrizketetan. Behin SPD eta CDU arma nuklearrei buruzko akordio batera iritsita, SPD ere Larrialdi Legeetara egokitu zen. Menzel isilik dago ordutik, eta Wolfgang Abendroth, Larrialdi Legeen aurka daudenen ideologo burua, alderditik bota dute.

Berrarmatze nuklearra eta demokrazia bateraezinak dira. Baieztapena ezezkoan jaurti daiteke: armamentu nuklearra eta demokraziaren amaiera osagarriak dira;

suntsipen handiko armak eta terrorea eskutik emanda doaz –termino teknikoetan, antolaketakoetan eta faktikoetan–. Hortaz, «bakea eta askatasuna» ardatz zituen Konstituzioaren programa politikoa suntsitu da.

Larrialdi Legeak onartuz gero, baliorik gabe utziko lituzke Herrenchiemsee-ko gizon zargalduek 1948an, Weimarren kolapsoaren eta hamabi urteko nazionalsozialismoaren ondoren, atera zituzten ondorioak. Horrelako lege batek ezabatu egingo lituzke herrialdearen historia faxista hurbila gainditzeko lehen saiakera alemaniarrak; ez luke historia hori ezabatuko. Horrela, demokraziak soilik giza duintasuna berma dezakeela ohartzea, armak erabat debekatzeak soilik bakea berma dezakeen modu berean, deuseztu egingo litzateke. Norabidea aldatzeko saioak zapalduta geratuko ziren, iraganari aurre egiteko prestutasuna suntsituta. Geratzen den askatasun bakarra gobernua sostengatzeko askatasuna litzateke, eta ez horren aurka egitea –ez, behintzat, konfrontazio zuzenaren bidez edo greba edo manifestazioen bidez–. Izan ere, askatasuna indargabetua izango zen, bere kalbarioari aurre eginez biziraun baino lehen. Formalki, eta pertzepzioari dagokionez, horrek esan nahiko luke, etorkizunean, ikuspegi kontrajarriak adierazten dituen edozein jendetza sarraskituko litzatekeela Hungariako 1956ko azaroan bezala, eta gerra ez dela politika adimendunak hedatuz saihestu behar; soilik "salbuespen egoera" posible gisa prestatuko litzateke, Errepublika Federalaren autoirudi berriarekin bat etorriz.

Giza duintasuna urragarria litzateke berriro, eta diktadura aukera bat. Gerra behin betiko aukera bihurtuko litzateke XX. mendearen bigarren erdian.

OHARRAK

1. Gustav Heinemann (1899-1976) Justizia Ministroa (1966-1969) eta Errepublika Federalaren presidentea (1969-1974) izan zen.
2. Robert Jungk (jaiotzez Robert Baum, 1913-1994) publizista, kazetari eta bake- eta ingurumen-mugimenduen aldeko aitzindaria izan zen.
3. Walter Menzel (1901-1963) Alderdi Sozialdemokrataren (SPD) politikaria zen.
4. *Deutschlandplan* SPDk bi estatu germaniarrak batzeko antzezlana izan zen, 1959ko martxoaren 18an argitaratua.
5. Rapacki Plana Erdialdeko Europan 1957an nuklearrik gabeko zonalde bat sortzea proposatu zuen Atzerriko Ministro Poloniar batean oinarrituta sortu zen.
6. Hebert Wehner (1906-1990) SPDko gai pan-alemaniarretarako ministroa izan zen (1966-1969). Alemaniako Alderdi Komunistako kide izan zen eta Nazien urteetan Moskun eta Suedian egon zen erbesteratuta. 1946an, Alemaniara itzuli zenean, Wehner SPDn sartu zen eta funtsezkoa izan zen SPDk Godesberg Programa onartzeko; programa horretan, Alderdiak bere iragan marxista baztertu eta Mendebaldeko Alemaniak NATOn zuen rola berretsi zuen.
7. Adolf Arndt (1904-1974) eta Friedrich Scheider dk. (1915-1988) SPDko parlamentu federaleko kideak izan ziren 1949-1969 eta 1957-1980 bitarte, hurrenez hurren.
8. Helmut Schmidt (1918-) SPDko parlamentu federaleko kidea izan zen (1953-1962; 1965ean itzuliz), Bundestag-ean SPD alderdiko presidentea (1967-1969), defentsa ministroa (1969-1972) eta Kantzilerra (1974-1982).
9. Wolfgang Abendroth (1906-1985) politologo sozialista eta zuzenbidean aditua izan zen, 1961ean SPDn debekatua.